

**POSIZIONAMENDU AKADEMIKOA,
ERANTZUKIZUN PUBLIKO, UNIBERTSITATE
GOBERNANTZA, GIZARTE DIMENTSIO ETA
FINANTZAKETARI BURUZ**



CREUP

Coordinadora de Representantes de
Estudiantes de Universidades Públicas



Posizionamendu txosten hau CREUPeko Zuzendaritza Batzorde Zabalduek proposatu du, baita zirriborroa idatzi ere; 2021eko uztailaren 22an onartu zuen Batzar Nagusiak, Salamancako Unibertsitatean egin zen 69. Ohiko Batzar Nagusian.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. <i>Goi mailako hezkuntzaren gaineko erantzukizun publikoa</i>	4
2.1. Funtsezko balioak	4
2.2. Unibertsitateko 2030 Agenda	4
2.3. Zuzentasun akademikoa eta jabetza intelektuala	5
2.4. Instituzioen autonomia eta askatasuna	6
2.5. Nazioarteko eragina	6
3. <i>Goi mailako hezkuntzaren gobernu</i>	7
3.1. Ikasleen parte hartzea	7
3.2. Lidergoa eta komunikazioa	8
3.3. Unibertsitate barneko egitura	8
3.3.1. Unibertsitate esparruan	9
3.3.2. Zentroan	12
3.4. Unibertsitate kanpoko egitura	14
3.4.1. Espainiakoa	14
3.4.2. Erkidegoetakoa	15



3.5.	Ikasleen ordezkariaren eragina	16
3.5.1.	Ordezkaritza jeneralista	16
3.5.2.	Sektorekako ordezkariaren eragina	16
4.	<i>Goi mailako hezkuntzaren dimentsio soziala</i>	16
4.1.	Irigarritasuna	17
4.2.	Gizarte kontzientzia	17
4.3.	Gizarte ikuspegia	17
4.4.	Unibertsitate elkarteetako lankidetzak	18
5.	<i>Goi mailako hezkuntzaren finantzaketa</i>	19
5.1.	Merkantilizazioari buruzko erabakia	19
5.2.	Inbertsio arrakala	19
5.3.	Helburuetan oinarritutako finantzaketa	20
5.4.	Sektore pribatuaren inplikazioa	20
5.5.	Hezkuntzako zergak ordaindu beharrik ez izatea	21
6.	<i>Ondorioak</i>	22



1. Sarrera

Goi mailako gizarte tresna bat da, bigarren hezkuntzaren ondotik, ondare kulturala, intelektuala eta zientifikoa sortzeaz eta zabaltzeaz arduratzen dena, baita gizartearen aurrerakuntzaz, garapenez eta berrikuntzaz ere.

Unibertsitatea, goi mailako hezkuntzaren erakunde gisa, gizarte justu, demokratiko, berdintasunezko eta plural bat bermatzeko eragile bat izan behar da. Etengabeko hobekuntza izan behar du helburu, bizitza osoko ikaskuntzaren bidetik, gizarte ekintzaren, dibulgazio zientifikoaren eta jakintzaren transferentziaren bidez.

CREUPen uste dugu hezkuntza hori irekia izan behar dela, eta ez duela mugarik ezarri behar. Hori hala izan dadin, estatuak bere unibertsitate sistema sostengatu behar du, horrek, aldi berean, gizarte aurreratuak, ahaldunduak eta justizia soziala dutenak garatzeko behar den eragina izan dezan.

Azken urteotan, duten goi mailako hezkuntza zentroak ugaritu egin dira, helburu pribatuekin eta unibertsitate batek izan beharko lituzkeen balioen kontrakoak. Halaber, unibertsitateen autonomiari eraso egin diote, autonomia mugatu nahi izan zaio. Unibertsitateak, erakunde gisa, ezin du interes pribatuen alde egin, gizartearen eta bere garapenaren alde baizik, unibertsitate gobernantza eredu on baten eskutik.

Unibertsitateari buruzko kudeaketa publikoak eta gobernuaren ekintzek osatzen dute gobernantza hori, eta guztia komunitatearen parte hartze aktiboan oinarrituta dago. Beharrezkoa da ikusaraztea guk nahi dugun unibertsitate eredu, estatuak horren gainean duen erantzukizuna eta unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremanak duen eragina. Horregatik, ikasleen parte hartzea funtsezkoa da, eta erdigunean izan behar da.

Beraz, Unibertsitate Publikoetako Ikasleen Ordezkarien Koordinazio Taldeak (CREUP) posizionamendu azalpen hau egiten dugu, idazki gisa, erantzukizun publikoaren eta unibertsitateen finantzazioaren alde, unibertsitateak bere helburuak lor ditzan, baita gobernantzaren eta gizartearekiko agertuko duen dimentsio sozialaren alde ere. Sustatu beharra dago ikasleak eragile proaktiboak izan daitezen, Espainiako Unibertsitate Sistema bidezko eta berdinzalearen alde, eta, aldi berean, ezagutza, kultura eta gizarte balioak zabaltzeko mekanismo bat izaten jarraitzeko.



2. Goi mailako hezkuntzaren gaineko erantzukizun publikoa

Unibertsitate baten erantzukizun publikoaren oinarria gizartearekiko eta hark bere jarduera autonomo eta independentearen bidez transmititu behar dituen balioekiko inplikazio maila izan behar da. Garapen soziala bultzatzea, bere komunitatearen jabetza intelektuala eta horrek aktualitateko gaietan duen eragina sustatzea oinarri hartuta eraikitzen da.

2.1. Funtsezko balioak

Goi mailako hezkuntzak funtsezko balioak izan behar ditu bere oinarrian; esaterako, garapen jasangarriari buruzko hezkuntza, zuzentasun akademikoa eta jabetza intelektuala, eta konpromiso argia izan behar du giza eskubideekiko eta demokraziarekiko. Balio horiek ezinbestekoak dira ikasleen eskubideak babestu eta bermatzeko; esaterako, kalitatezko hezkuntza publikorako eskubidea eta adierazpen askatasuna.

Goi Mailako Hezkuntzako Europako Esparrua (GMHEE) antolakundearen sorkuntzarekin, estatu kideek balio horiekiko konpromisoa berresten dute. Hala ere, demokraziaren aurkako indarren oldarraldiaren eraginez, konpromiso horri dagokionez, beharrezkoa da gainbegiratze mekanismo independente bat izatea, Bolonia Prozesuko funtsezko balioak betetzen ez dituzten estatuak zigortuko dituen.

2.2. Unibertsitateko 2030 Agenda

2030 Agendak garapen jasangarriari eta kultura demokratikoari dagokienez jarraitu beharreko pausoak ezartzen ditu. «Etorkizuneko belaunaldien beharrak arriskuan jarri gabe gaur egungo beharrei aurre egiten diena» da garapen jasangarria. Izan ere, jasangarritasuna funtsezkoa eta diziplina anitzekoa da, eta hezkuntzan txertatu beharra dago, gizartean izan dezakeen eraginari buruzko pentsamendu kritikoa sustatzeko.

Herritarrentzako erreferente bat izatean datza, horretarako, bide jasangarri eta garbien alde egin behar da apustu, zeinak garrantzi handia baitauka gure gizartearen jasangarritasunean. Material biodegradagarriak gehituta sortzen den karbono aztarna murrizteko ahalegina egin behar da, eta ekonomia zirkularra eta energia autokontsumo berriztagarria bultzatu.



Horrez gain, unibertsitateak kultura demokratikoari buruzko prestakuntza bultzatu behar du, eta ikasleek giza Eskubideei buruz duten jakintza areagotu, baita zenbait funtsezko askatasuni buruzkoa ere, egungo gizartearen alderdi kultural, politiko, sozial, zibil eta legalei dagokienez.

Kultura horren erdiguneak ikaslea izan behar du, eta indarkeria, arrazakeria, muturreko jarrerak, xenofobia, sexismoa, LGBTIfobia eta beste edozein bazterkeria mota eragozteko eta aurreikusteko giltza izan behar du. Kultura harremanen oinarrietako bat izan behar da, baita aniztasuna eta ekitatea zabaltzeko oinarrietako bat ere. Printzipio horiek garatzea behar-beharrezkoa da errespetuzko gizarte bat eraiki eta XXI. mendeko herritarrei dagozkien balioak bultzatzeko.

2.3. Zuzentasun akademikoa eta jabetza intelektual

Unibertsitateko zuzentasun akademikoa jakintzaren bila modu zintzoan eta bidezkoan jarduten denean agertzen da, elkarrekiko errespetuz eta konfiantzaz egiten denean, eta onartzen denean norbere komunitatearen ekintzen eta horien ondorioen erantzukizuna. Unibertsitate komunitateak bere betebeharrak gisa onartu behar du ustelkeria, plagioa, botere gehiegikeria eta unibertsitate esparruan gerta daitekeen iruzur mota oro. CREUPen uste dugu elkarbizitza akademikoaren unibertsitateko arautegi bat egon behar dela, eta ikasleen sektoreak aktiboki parte hartu behar duela bertan; helburua zuzentasun akademikoaren kontrako ekintza oro zigortzea da.

Unibertsitateen ardura da zuzentasun akademikoa sustatzea; horretarako, prebentzio neurriak hartu behar dira, hala nola irakaskuntza metodoen dibertsifikazioa eta ikaslearengan zentratutako ikaskuntzaren sustapena. Zuzentasun hori bermatzeko bidean, pauso handia litzateke barneko ebaluazio sistema anonimoak ezartzea.

Era berean, unibertsitateak jabetza intelektualaren eskubidea bultzatu behar du. Jabetza intelektual da patente edo egile eskubide bidez babestu daitekeen sorkuntza ukiezin oro. Sorkuntza hori jabetza erreal gisa hartu behar da, bere egileek horrekin lortzen diren irabaziekin zer egin behar den erabakitzeko eskubidea baitute.

Beharrezkoa da unibertsitate komunitateari proiektu originalak eta berritzaileak gauzatzea ahalbidetzen dion kultura sustatzea. Hortaz, ikasleei erakutsi egin behar zaie jabetza intelektual hori babesten, eta baloratu egin behar dute proiektu propioak egiteak duen garrantzia, baita



autoreta errespetatzeak eta proiektuak bultzatzeko behar adinako laguntza emateak duen garrantzia ere. Unibertsitateak instituzioen baliabideak eskuratzeko bidea eskaini behar die ikasleei, beraien obra landu ahal izateko, lan horri uko egitera behartuko dituen klausularik gabe, ezta kostu gehigarririk gabe. Ikasleen jabetza intelektuala mugatzen duten jarrerak ez dira onargarriak unibertsitatean, zeinak erakunde ireki bat izan behar duen.

2.4. Instituzioen autonomia eta askatasuna

Unibertsitate autonomia esanda, ulertu behar da unibertsitate erakundeek independenteak izan behar dutela beraien barne politikak eta estrategiak garatu ahal izateko, baita jakintza zabaltzeko ere. Horregatik da beharrezkoa goi mailako hezkuntzan kanpoko faktoreek esku hartzen ez dutela bermatzea, eta unibertsitateei normaltasunez funtzionatzeko behar dituzten baliabideak ematen zaizkiela.

Esku hartze politiko eta ekonomikoek ez dute unibertsitatearen jokabide etikoan eraginik izan behar, unibertsitateak eztabaidarako kultura akademikoa eta pentsamendu kritikoaren bidezko ikerketa sustatu behar ditu, eta, unibertsitateko jardueraren kudeaketa egokia izan dadin, askatasun akademikoa, katedra askatasuna eta halako balioak defendatu behar ditu.

Hala ere, independenteki jokatu duten kanpo eragile batzuk ere egon behar dira, unibertsitateen funtzionamendua egokia dela egiaztatuko dutenak, gizartearekiko inplikazio mailari eta haren sortzetiko helburuei dagokienez, eta unibertsitate komunitateak egiten dituen ekintzak gardentasunez egiten dituela.

2.5. Nazioarteko eragina

Nazioartekotzea GMHEEaren ezarpen eta garapen prozesua egin zen bitartean sortutako kontzeptua da. Kontzeptu hori kalitatearen adierazgarri gisa erabili nahi da, eta ikasketa planak, ikerketa, hizkuntzaren ikaskuntza eta mugikortasun programak biltzen ditu. Nazioartekotzea ez da ikasleentzat bakarrik, unibertsitateko kolektibo guztientzat da, eta hezkuntza metodologia guztia aldatzen du.

Unibertsitateek izan behar dituzten goi mailako hezkuntzaren balioak eta nazioartekotzea aintzat hartuta, nazioartean elkarlanean aritzearen alde egin behar da, jakintza transmititu eta kulturen arteko lankidetzak eta balio demokratikoen araberrako eta funtsezko eskubideen alde egiten duen herritartasun globala sustatzeko. Ezin da, inolaz ere, goi mailako hezkuntzaren nazioartekotzea negoziatzeko eta etekina lortzeko erabili. Hezkuntzak ondasun publikoa izan



behar du.

Horregatik, Espainiak dituen nazioarteko akordioetan hezkuntza negoziatzeko gaien artetik kentzea defendatzen du CREUPek, Europar Batasunak, EEEK (Europako Ekonomia Esparruak) eta EMLEK (Europako Merkataritza Librerako Elkarte) jasotako merkatu akordioak onartzen baititu. Horrez gain, Europako komunikazioa hobetu egin behar da, nazioartekotzearen eta maila guztietako hezkuntzaren oinarriei buruz eztabaidatu dadin; izan ere, unibertsitateek izaten dituzten arazoak bat etortzen dira sarri, eta erantzuna aho batez ematea komeni da.

3. Goi mailako hezkuntzaren gobernu

Goi mailako hezkuntzaren ideia orokorretako bat, hain zuzen ere, bere kideen irekitasuna da, zeina prestakuntzaren eta pentsamendu kritikoaren bidez lantzen baita. Kultura sustatzen duten espazio gisa ulertzen ditugu unibertsitateak, eta helburua da unibertsitate gobernantza delakora iristea. Apartatu honetan, helburu horretako gure unibertsitate sistemako funtsezko alderdietan sakonduko da.

3.1. Ikasleen parte hartzea

Unibertsitateko komunitatea osatzen duten sektoreen artean, ikasleena da handiena, alde handiz, gainera. Sektore horrek eskubidea du beraien unibertsitateko bizitza baldintzatzen duten eta gizarte eta akademia arloetan eragin diezaioketen erabakietan parte hartzeko. Irakaskuntzaren hobekuntza eta ebaluazio prozesuetan behar-beharrezkoa da ikaslearen parte hartzea. Zoritxarrez, ikasleen parte hartzea oso azalekoa izaten da askotan, eta baliozko iritzirik ez duen ikusle hits bilakatzen da. Beraz, unibertsitateak berak sustatu behar du ikasleen parte hartzea, eta pentsatu beharko litzateke ea erakunde batzuetan parte hartuko duten ikasleen gutxieneko kopurua ezarri beharko litzatekeen.

Horregatik guztiatik, CREUPek ere uste du kogobernantza eredu delako egokiena, beste herrialde batzuetan egiten den gisan. Eredu horri jarraikiz, onartu beharra dago unibertsitateko ikasleak eta langileak ere unibertsitatearen komunitateko kide direla, eta, beraz, unibertsitatearen kudeaketari dagokionez berdinak izan behar direla. Parte hartzaileek ardurak banatzen dituzten ekitate eredu bat behar da. Horregatik, ikasleak aktiboak izan behar dira eta unibertsitatean gertatzen denaren berri izan behar dute ikasleen ordezkariak tresnen bidez. Unibertsitateko organo orok behar du osaera parekidea izan, ez axola zer arlotakoa den. Hori funtsezkoa da ikasleak ez ditzaten isilarazi unibertsitatearen kudeaketa prozesuetan.



Horretarako, ikasleen ordezkariak erraztasunak eman behar zaizkie beraien ibilbide akademiko eta ordezkaritza lana egin ahal izateko. Horrez gain, aipatutako bi jarduera horiek uztartzea eta unibertsitate elkarteetan edo boluntariotza programetan parte hartzea bultzatu behar da, pentsamendu kritikoa sustatu eta ikasleek gehiago parte hartzeko.

Horregatik guztiagatik, ikasleen ordezkaritza organoek independentzia ekonomikoa eta politikoa izan behar dute. Independentzia finantzarioa izateko beharrezkoa da gutxieneko partida ekonomikoa jasotzea, zeina beharrezkoa baita ikasleen ordezkaritza helburuak betetzeko. Independentzia politikoa izateak esan nahi du ikasleek ezartzen dutela beraien ordezkartzaren norabidea, eta daukaten erabakitzeke indar guztia dela ikasleen arabera, alegia, beste faktoreek ez dutela eragiten.

3.2. Lidergoa eta komunikazioa

Unibertsitateek onartu egin behar dute unibertsitateko buruen rola. Hots, akordioetara iristeko asmoz, norbere sektorearen ordezkari gisa hitz egin ahalko duten bozeramaile edo pertsonak. Buru horiek unibertsitatean lehentasun estrategikoak ezarri eta komunitatean sortu daitezkeen gatazkak kudeatu behar dituzte. Buruen aukeraketa, sektore bakoitzaren barneko ordezkaritza prozesuen bidez egingo da, figura hori adostua izan dadin, eta konpromisoa har dezan dagokion sektoreko arazoak konpontzeko.

Rol horiek onartzea aukera ona da unibertsitatean komunikazioa eta eztabaida bultzatzeko; hala, komunikatzeko modua irekia, gardena eta inklusiboa dela ziurtatzeko behar diren baliabideak eta gaitasunak garatzen direla baieztatuko da. Horrez gain, unibertsitatea ez denez gizartetik at dagoen erakunde bat, beharrezkoa da moduak aurkitzea unibertsitatearen jarduketara herritarrengana hurbiltzeko, unibertsitateko komunitatea osatzen duten pertsonen haratago.

3.3. Unibertsitatearen barne egitura

Unibertsitate gobernantzari buruz aurrez aipaturiko ideiak ager daitezen, unibertsitatearen egitura aldatu eta berri bat pentsatu beharra dago, zeinetan ikasleen parte hartzea giltza izan behar den gobernu organoek erabakiak hartzeko orduan. Ildo beretik, ikasleen ordezkartzaren egitura ere definitu beharra dago, unibertsitateko komunitateko sektore zabalena eta, proportzioan, gobernu organoen artean ordezkagarritasunik txikiena duena koordinatu ahal izateko.



3.3.1. Unibertsitate esparruan

Unibertsitate organoak

Kogobernantza defendatzeko orduan, gobernu organoetan ikasleen ordezkarritasuna, gutxienez, % 30ekoa izan behar da, sektoreen arteko botoen haztatzerik gabe.

Unibertsitate Klaustroa

Unibertsitate Klaustroa unibertsitatearen komunitateko ordezkaritza organo gorena da. Hala ere, gaur egun, klaustroak bigarren mailako funtzioa du, unibertsitatearen funtzionamenduari buruzko erabaki gehienak gobernu kontseiluan hartzen baitira.

CREUPen uste dugu klaustroa gutxienez bi hilabetean behin elkartu beharko litzatekeela eta egungo gobernu kontseiluak dituen funtzioak bere gain hartu beharko litzatekeela, unibertsitateari eragiten dioten gai garrantzitsuenei buruzko erabakiei dagokienez.

Hura osatzen dutenen parte hartzea bultzatu beharra dago eztabaidak indarra har dezan organo horren barruan eta gai zerrendara puntuak gehitu daitezzen; hala, Ikasleen Ordezkaritza Organo Gorenak (IOOG) gai horiekiko ikasleen iritzia zein den adierazi ahalko du. Era berean, Pertsona Bakarreko Ikasleen Ordezkaritza Organo Gorena (PBIOOG) klaustroko berezko kideztat hartu behar da.

Gobernu kontseilua

Gobernu kontseilua unibertsitateko gobernu organoa da, eta honako funtzio guzti hauek betetzen ditu: unibertsitateak zer egin behar duen eta irakaskuntza eta ikerketa burutu daitezzen erabili behar diren mekanismoak zeintzuk diren adierazten du, unibertsitateak eskura dituen giza baliabideak, baliabide fisikoak, digitalak zein ekonomikoak kudeatzen ditu eta aurrekontuak egiten ditu.

Ikasleen sektoreko unibertsitate buruak eskubide osoko partaide gisa gehitu behar dira. Hasieran, rol hori Pertsona Bakarreko Ikasleen Ordezkaritza Organo Gorenak (PBIOOG) edo haren pareko figura batek hartzen du, baina rol hori beteko duena IOOGko zuzendaritza taldea izan dadin erabakitzen da. Horrez gain, bermatu egin behar da unibertsitateko komunitateko sektoreen parekidetasuna eta gutxienez hilabetean behin biltzea. Gobernu organo gisa, gobernatzen duen komunitatearen isla izan behar du, eta batzarrak egin behar dira arazoak



konpontzeko eta hobetu daitezkeen gaiei buruz eztabaidatzeko. Horregatik, beharrezkoa da kritika egiteko baimena izatea. Eta horregatik, beharrezkoa da kritika egiteko baimena izatea, eta gehiengoaren interesen aurka sor daitezkeen korporatibismoa albo batera utzi beharra dago.

Gizarte Kontseilua

Gizarte kontseilua gizartearen eta unibertsitate komunitatearen arteko komunikazioaz arduratzen den unibertsitate organoa da, eta unibertsitateak beharrezkoa duen gizartearen parte hartzea bermatzen du. Egun, gizarte kontseiluaren eraginez, unibertsitateaz kanpoko erakundeek aukeratutako unibertsitatez kanpoko pertsona batek unibertsitate organoek aurrez onartutako elkarlan hitzarmenak onartzea baldintzatu edo mugatu daiteke.

CREUPen uste dugu gizartearen eta unibertsitatearen arteko harremanetan inplikazio handiagoa izan beharko litzatekeela. Gizarte kontseilua osatzerakoan, unibertsitatearekin lotura duten enpresa txiki eta ertainen aldeko apustua egin behar da, eta baita graduatutako ikasleei ere, instituzioa kanpotik nola bizi duten adierazi dezaten. Alderdi politikoez ezarritako pertsonen presentzia, ordea, baztertu egin behar da, baita horietan aktiboki parte hartzen dutenak ere. Gainera, presidentea gobernu kontseiluan bertan aukeratu behar da. Gizarte kontseiluak ikasleen ordezkariarekin lankidetzan aritu behar du unibertsitateak gizarte gaietako ekintzetan parte hartu dezan eta gizartearen oniritzia duen unibertsitateko organo bat izan dadin.

Unibertsitate batzordeak

Aipatu batzordeen funtzionamendua ezinbestekoa izaten da, unibertsitateko komunitatearentzat garrantzitsuak diren gaiei buruz eztabaidatzen dutelako. Gaur egun, ontzat hartzen da Ebaluazio batzordeak sortzea honako gaiei heltzeko: konpentsazioak, jazarpenaren eta genero indarkeriaren prebentzioa, Psikologia batzordeak eta ikasleentzako beka eta dirulaguntzak.

Ikasleen ordezkari-tza organo gorena

Ikasleen ordezkari-tzaren egitura zehaztuta eduki behar du unibertsitateak, nola unibertsitate alorrean, hala zentroetan eta campusetan ere (hala den kasuetan). Unibertsitateen artean ezberdintasunak daudela kontuan hartuta, osaera formulak ere anitzak izan daitezke. Halakoak osatzeko orduan, ikasleen aniztasuna errespetatu beharra dago; hots, generoan eta ezagutza eremuetan parekidetasuna, baita unibertsitate ikasketa mailan ere.



CREUP

Coordinadora de Representantes de
Estudiantes de Universidades Públicas

**POSIZIONAMENDU AKADEMIKOA,
ERANTZUKIZUN PUBLIKO, UNIBERTSITATE
GOBERNANTZA, GIZARTE DIMENTSIO ETA
FINANTZAKETARI BURUZ**

IOOGak instituzioetan presentzia eta errekonozimendua izan behar du, unibertsitateari lotutako erabaki orokorrak hartzeko orduan.

IOOGaren ardura da zentroko delegazioekin hitz egitea, edozein arazo sortuz gero; horrez gain, sortzen den edozein egoeratan laguntzeko prest dagoen erakunde bat izan behar du. Era berean, bere ardura da unibertsitateko erakundeak sustatu eta haiekin lan egitea, ordezkatzeko dituen ikasleek unibertsitate bizitza eta baldintza akademikoak egunetik egunera hobetzeko eta haien eskubideak defendatzeko.

Pertsona bakarreko karguak

Errektorea

Kogobernantza eredia oinarri hartuta, ez litzateke sektoreen artean botoen haztatzean ezberdintasunik izan behar. Errektorearen aukeraketa sufragio unibertsalaren bidez egin behar da. Postua lortzen duenak ez du bertan lau urteko bi legegintzaldi baino gehiago egon behar.

Errektoreak eta bere lantaldeak egin beharreko lanen artean dago eztabaidarako bideak sortzea unibertsitateko komunitatean, zeintzuek adostasuna eta eztabaida eraikitzailea izango duten oinarri.

Defentsaria edo postu homologoak

Figura hori izan ohi da unibertsitateko komunitateko azken instantzia, gobernu kontseiluak akordioa sinatu aurretik, unibertsitateko komunitatean sortutako edozein gatazkari irtenbide bat aurkitzeko orduan. Hala ere, Espainiako Unibertsitateetako Defentsarien Biltzarrak eskatzen du kargu hori proaktiboagoa izan dadila, eta IOOGaren eta zentroetako delegazioen arteko elkarlanaren aldeko apustua egiten du, ikasleen kexei aurre egiteko. Horregatik, IOOGak uste du postu horrek baliabide gehiago eta komunikazio estuagoa izan behar duela ikasleen ordezkariekin, unibertsitatean dauden kasuei irtenbide bat bilatzeko ahalik eta azkarren eta ongien.

PBIOOG

IOOGko kideen artean PBIOOG (Pertsona Bakarreko Ikasleen Ordezkaritza Organo Gorena) edo horren pareko figura bat egon dadin gomendatzen da, unibertsitatearen kanpoko organoetan



parte hartzeko erreferentziazko ordezkari bat (edo batzuk) izan dadin; horrez gain, unibertsitate buru lanak eta unibertsitateko edozein ikaslerekiko lotura lanak ere egiteko. Unibertsitate bateko ikasleen ordezkari gorenena da, eta balio demokratikoak izan behar ditu oinarri, ikasleen ahotsa, nahiak eta beharrak parte hartzen duen batzar guztietara helarazteko.

3.3.2. Zentroan

Eskoletan, fakultateetan edo unibertsitate zentroetan eman behar zaio garrantzirik handiena ikasleen ordezkariari eta gatazkei irtenbideak aurkitzeari. Izan ere, unibertsitateko komunitateari eragiten dioten erabakietatik asko sektore horietan hartzen dira, eta beraz, parte hartzea funtsezkoa da.

Zentroko organoak

Zentroko batzordea

Batzordearen osakeraren % 30a ikasleek bete dezaten ahalegina egin behar da. Beharrezkoa da gai zerrendan zentroko IOOGak ikasleei eragiten dieten zalantzak edo gaiak mahaigaineratzeko moduko puntuak izatea. Azkenik, funtsezkoa deritzogu zentroko batzordea gutxienez hilabetean behin biltzeari, ahalik eta gardentasun handiena erakutsi eta zentroaren egoerari buruzko eztabaida eraikitzailea sortzeko.

Zentroko batzordeak

Izan daitezke batzorde batzuk ere zentroan, batzorde iraunkorra (zentroko erakunde betearazlea), gradu edo masterreko batzorde akademikoak, ikasketa plan jakin bati eragiten dioten kontuak konpontzeko, edo kalitate batzordea, irakaskuntza kalitate estandarrak betetzen direla bermatzeko. CREUPek apustua egiten du ikasleek komisio horietan parte hartze erabilgarri bat izan dezaten, eta ez dadila izan, beraz, bigarren mailakoa; horretarako, aurrez aipatutako % 30a mantentzea proposatzen du.



Departamentuetako kontseiluak

Departamentuetako kontseiluak (edo pareko organoak) arduratzen dira zentroetako irakaskuntza eta ikerketa koordinatzeaz. Beraiek dituzten eskumenen artean izan ditzakete ikasketa planetako irakaskuntza gidak aldatzeko gaitasuna, espazioak esleitzekoa eta urteko irakaskuntza plangintza egitekoa.

Funtsezkoa izan behar da organo horretan ikasleek parte hartzea, ikasleek ikastaro bakoitzean izango dituzten kontzeptuei eta ebaluazio irizpideei zuzenean eragiten baitie. Ikasleen parte hartzea sustatu beharra dago irakaskuntza gidak moldatzeko prozesuetan eta emaitza akademikoak eskasak izan ohi diren ikasgaien jarraipenean; hala, emaitza horiek hobetzeko egin daitezkeen moldaketetan parte hartu dezakete.

CREUPen uste dugu irakaskuntza gidak, beharbada, lehenik zentroetako delegazioen eskuetatik pasatzea izan daitekeela egokiena, haiek berrikusi ditzaten; izan ere, ikasle gisa esperientzia dute, eta zenbait aldaketa egitea baloratu edo proposatu dezakete. Era berean, uste dugu giden onarpena eta azken moldaketa zentroko batzordean edo dagokion batzorde akademikoan egin behar dela; hala, ikasleek eztabaidan duten parte hartzea areagotuko egingo da eta errespetatu egingo da zentro bakoitzaren organigrama.

Dekanotza edo zentroko zuzendaritza

Dekanotzak edo zentroko zuzendaritzak zentroan hartu beharreko erabakiak proposatu, eztabaidatu eta adosteko prest izan behar du. Dekanotzaren edo zuzendaritzaren eta IOOGaren artean elkarrizketa egon behar da, nola ikasleei buruzko gaietan, hala unibertsitate hedapenari eta gatazken konponketari buruzkoetan ere. Horregatik, uste dugu ez dela egokia zentroko zuzendaritza taldean ikasleren bat izatea, ikasleen ordezkari zuzenaren zuzendaritza kendu ahalko bailioke. Dekano edo zuzendari figurari dagokionez, haren aukeraketa sufragio unibertsalaren bidez egin behar da, zentroko kideek hartuko dute parte hauteskundeetan, eta ez da haztapen ezberdintasunik izan behar sektoreen artean.

Ikasleen ordezkariak

Zentroetako ikasleen ordezkariak ikastetxeko delegazioak edo haren pareko organoak osatzen du; organo horretan izan behar dira, gutxienez, zentroetako gobernu organoetako kide guztiak, zeintzuk demokratikoki aukeratuak izan behar baitira. Delegazioak Zuzendaritza batzordea edo



horren parekidea den organo bat izan behar du, baita lehendakari bat edo horren pareko pertsona bakarreko figura bat ere.

CREUPen uste dugu zentroetako delegazioek beraien organigraman sartu behar dituztela ikastaro edo titulazio bakoitzeko ordezkariak (ikasketa planei buruzko gai espezifikoak eztabaidatu behar direnerako). Ikastaro bakoitzeko ordezkariak organigraman sartzeaz gain, gela bakoitzeko ordezkariak ere sartu beharko dira, egunerokotasunari aurre egiten diotenak beraiek baitira, eta irakasleen eta gela bakoitzeko kideen arteko lotura baitira. Era berean, laguntzaileak izendatzea ere aztertu behar dela uste dugu, unibertsitate hedapeneko ekintzetan laguntzeko edo unibertsitate elkarreekiko harremanak kudeatzeko.

3.4. Unibertsitatearen kanpoko egitura

Nahiz eta unibertsitateak ongi funtzionatzeko garrantzitsua den barneko egitura argi bat izatea, ez dugu ahaztu behar unibertsitate instituzioen arteko elkarlana, unibertsitateen gaineko eskuduntza autonomia erkidegoena dela eta estatu mailan unibertsitate munduari eragiten dioten erabakiak hartzen direla. Horregatik, unibertsitatearen kanpo egitura ere zehaztu egin behar da.

3.4.1. Espainiakoak

Unibertsitateen Kontseilua

Unibertsitateen kontseilua unibertsitateen gaineko eskumenez arduratzen den sailaren azpitik dagoen organo bat da, eta bere helburua da Espainiako unibertsitateak koordinazio akademikoaz, kontsultaz, proposamenez eta unibertsitate gaiei buruzko elkarlanaz arduratzea.

Organo horren eta bere ekintzen garrantzia aintzat hartuta, funtsezkoa da Estatuko Ikasle Unibertsitarioen Kontseiluak aukeratutako ikasleen ordezkariak unibertsitateen kontseiluan parte hartzea, ikasleen iritzia helarazteko. Era berean, aukera izan behar dute unibertsitateen kontseiluak dituen komisioekin lan egiteko.

Unibertsitate Politikari buruzko Konferentzia Orokorra

Unibertsitate Politikari buruzko Konferentzia Orokorra edo UPKO unibertsitate politika orokorraren koordinazio eta lankidetzat organoa da. Gobernu autonomikoetako unibertsitate gaien arduradunek osatzen dute.



Organo horren egitura zein den aintzat hartuta, beharrezkoa deritzogu ikasleek ordezkari izateari; horretarako, erkidegoetako kontseiluek edo G-9a bezalako organo espezifikoek har dezakete parte. Ikasleen hitza aintzat hartu behar da, bai osoko bileretan, bai dauden lantaldeetan.

Estatuko Ikasle Unibertsitarioen Kontseilua

Estatuko Ikasle Unibertsitarioen Kontseilua edo EIUK da unibertsitate ikasleen estatuko deliberazio, kontsulta eta parte hartze organoa. Organo hori ezinbestekoa da Espainiako unibertsitate sistema osatzen duten IOOGen eta unibertsitate gaiei buruzko eskuduntza duen sailaren arteko komunikazioa ona izan dadin.

Sail eskudunaren arabera biltzen da organo hori, eta beraz, ez da askotan biltzen den organoa izan ohi. Horregatik, dokumentazio gehiena komisio iraunkorraren bileretan aztertu ohi da, eta ez zuzenean osoko bileretan. EIUK funtsezkoa da unibertsitate ikasleen arazoan aurrean ekintza esparruak proposatu ahal izateko eta gobernuak proposatzen dituen arau aldaketetan parte hartzeko. Horrez gain, adarretako komisioak ditu, horrek sektore bakoitzean ordezkari izatea errazten du, eta horrek, aldi berean erraztu egiten du elkarlana.

3.4.2. Erkidegokoak

Erkidegoetako kontseiluak ezinbestekoak dira ikasleen ordezkariaren ikuspuntutik unibertsitate politika kudeatzeko. Unibertsitate gaiei buruzko eskuduntza dutenez, erkidegoetako gobernuen ardura da kontseilu horiek osatu eta biltzea, ikasleen ordezkariaren egoeraren berri zuzenean izateko. Kontseilu horien erabilgarritasunaren funtsa da autonomia erkidegoak hartu beharreko neurriei buruzko adostasuna lortzeko balio izatea. Organo horiek behar bezala funtzionatzeak eta erkidegoetako gobernuekin elkarriketan aritzeak sor daitezkeen hainbat arazo konpontzea eragingo luke.

Grupo 9 edo G-9 delakoarena aparteko kasua da. Talde horretako kideak dagokien autonomia erkidegoko unibertsitate publiko bakarrak dira, eta, beraz, komunikazioa sustatu eta baldintzak hobetzeko asmoz, ahalegina egiten dute kideen artean elkarlanean aritzeko.



CREUPen autonomia kontseiluen figura defendatu egiten dugu, eta uste dugu beharrezkoa dela horiek martxan izatea eta autonomia erkidegoetako kalitate agentziekin lankidetzan aritzea, unibertsitate sistema bermatzeko tresna gisa.

3.5. Ikasleen ordezkartzaren eragina

3.5.1. Ordezkaritza jeneralista

Nazio mailako ordezkartza izan behar da ikasleen interesen defentsaren erdigunea. Beka sistemarekin edo unibertsitatera sartzeko oztopoak desagerrarazteko tasen eta prezio publikoen jaitsierarekin lotutako kontuak estatuko ordezkartzaren euskarri funtsezkoenak dira. Horregatik egiten dugu unibertsitatearen aurreko etapetan CREUP edo CEUNE gisako estatu mailako ordezkartza organoek bestelako ikasleen ordezkartzako elkarteekin elkarlanean aritzearen alde. Bizi garen herrialdeko hezkuntza sistemaren azken katebegia da goi mailako hezkuntza, eta hezkuntza maila guztietan ahalik eta onena izan dadin lagundu behar dugu.

3.5.2. Sektorekako ordezkartza

Azkenik, CREUPen defendatzen dugu unibertsitate ordezkartza gauzatu daitekeela titulazio bat edo titulazioen adar bat ordezkartzen duten estatu mailako sektorekako elkarteen bidez. Horien iritziek ordezkartza jeneralistaren iritzia osatu dezakete zenbait gaitan; horrez gain, titulazio bakoitzean edo lanpostuetarako sarbidean izan daitezkeen arazoak konpon ditzakete.

Barnetik begiratuta, ordezkartza hori zentroetako ordezkartzetatik sortzen da, baina positibotzat jotzen da iritzi horiek bilduko dituen kanpoko figura bat izatea. Sektore bakoitzeko elkarteen artean elkarlanean aritu beharra dago, eta proposamen hori, gaur egun, EIUKen adarretako komisiotan eta CREUPen Sektorekako Gaien batzordean proposatu ahal da.

4. Goi mailako hezkuntzaren dimentsio soziala

Apartatu honetan, goi mailako hezkuntzaren dimentsio sozialaren honako definizioa ematen da: goi mailako hezkuntzaren, batez ere unibertsitateen, eta herritarren zein kanpoko agenteen arteko interrelazioak ahalbidetzen dituzten funtsezko faktoreen multzoa da, eta harreman horiek gizartearen aurrerapenak sustatzeko duten modua.



4.1. Irisgarritasuna

[CREUPen Posizionamendu Akademikoa, Goi Mailako Hezkuntzako Mugei buruz](#) (gaztelaniaz)

estekan azaltzen dira izaera sozioekonomikoa eta akademikoa duten mugak, baita iraunkortasunari buruzkoak ere. Muga horietako asko ulergarriak dira, unibertsitateen finantzazio moduei erreparatzen badiegu, baina funtsezkoa da egun dauden arrakalak desagerraraztea unibertsitateerako sarbidea bermatzeko. Unibertsitateak ezingo du inoiz gizartean eragin gizarteak ez badu unibertsitate sartzeko modurik.

Gainera, badaude komunitatean zenbait kide, unibertsitate zerbitzuak eskuratzeko behar bereziak dituztenak, eta instituzioen betebeharra da behar horien aurrean erantzun eta irtenbideak proposatzea, nola kontu fisikoei dagokienean, hala desgaitasunen bat duten pertsonen lagundu behar zaien kasuan ere. Beharrezkoa da unibertsitateak inbertsio bat egitea inork ez dezan ezintasunik izan unibertsitate sartzeko.

4.2. Kontzientziazio soziala

Azken urteotan, Espainiako gizarteak hainbat aldaketa garrantzitsu bizi izan ditu balio eta printzipioei dagokienez; beraz, aldaketa horiek lekua izan beharko lukete goi mailako instituzioetan. Mugimendu feministak ikusgarritasun handiagoa du, baita LGTB+ mugimenduak eta genero indarkeriaren aurkako ekintzek ere. Era berean, gizartearen osasun mentalak duen garrantzia azpimarratu da.

Horregatik guztiagatik, CREUPen uste dugu Espainiako unibertsitate sistemak ideia horiei indarra eman behar diela unibertsitateko komunitatearen barruan. Sexu jazarpenaren, bazterkeriaren edo unibertsitate garaiek sor dezakeen estresaren ondorio larrien prebentzioa funtsezkoa bihurtu da azken urteotan ikasleen prestakuntzarako. Printzipio horien arabera prestakuntza, gai horiei eta beste gai batzuei buruzko ikastaroak eskaintzea, esaterako, zeharkako gaitasunei buruzkoak, edo unibertsitatean kabinete psikologikoak izatea behar beharrezkoa izan daiteke unibertsitate instituzioak humanizatu eta gaurkotasuneko arazoak dituen goi mailako hezkuntzaren irekitasuna sustatzeko.

4.3. Gizarte ikuspegia

Betidanik aipatu izan da unibertsitateak bere inguru hurbilean parte hartu eta hartaz arduratu dela. Unibertsitateak dagokion lurraldean sustraitzea sustatu behar du, eta eragile oso



garrantzitsua izan behar da bere inguruan eragin eta inguruko baldintzak hobetzeko.

Unibertsitatea proaktiboa izan behar da gizartearekiko ardua horretan eta gizartearen parte izateko ahalegina egin behar du.

Unibertsitate ekosistemak autokritika ariketa bat egin behar du, aztertzeke gizartean parte hartzen duen edo haren parte den eta bere betebeharra betetzen duen. CREUPen defendatzen duguna da unibertsitateak, bere sorrerako balioetan oinarrituta, elkarrizketa eta adostasuna sustatu behar duela, erakusteko gizarte batek nolakoa behar duen izan. Testuinguru horretan, gizarte kontseiluek duten garrantzia handitu egiten da. Berriz aztertu beharra daukate beraien osaera, batetik, eta unibertsitatearen eta gizartearen arteko zubia izateko funtzioa betetzen duten, bestetik. Behar beharrezkoa da kanpoko eragile pribatuen parte hartzea mugatzea eta herritarrez osatutako eragileek duten parte hartzea handitu dadin zaintzea. Batez ere, debekatu beharra dago sektore pribatuko organoetako kideek gehiengo edo beto eskubidea izatea, unibertsitateko gobernantzari kontra egin diezaioketelako.

Hala ere, gizarte kontseiluez harago, unibertsitatearen ahulguneetako bat izan da beti hedabideetan zabalkunderik ez izatea. Gizarteari eskaintzen zaion ikasleen irudia ez dator bat errealitatearekin, eta, gainera, ikasleen ahotsa eskaintzen zaie unibertsitateko bizitzan garrantzi oso txikia duten elkarreei. Uste dugu unibertsitate buruen figurek lagundu egiten dutela ikasleena bezain zabala eta anitza den sektore bat identifikatzeko orduan. Horrez gain, unibertsitate komunitatearen izenean hitz egitean izaera politikoa eskain daiteke. Unibertsitatea, hedabideez gain, bestelako kateen bidez ezagutu dadin sustatu behar da, esaterako, eragile publikoekin duen harremanagatik; horrek, unibertsitateak gizartearekin harremanak izateko aukerak handitzen ditu, eta unibertsitatea inguruan sustraitzen laguntzen du.

4.4. Unibertsitate elkarteekiko lankidetz

Aurrez aipatutako guztiaren artetik, unibertsitate elkarteak ezinbestekoak dira unibertsitatearen irudia indartzeko. Horregatik, aurrez aipatutako independentzia politikoaren eta finantzarioaren printzipioen arabera lan egiteko baliabideak izan behar dituzte; horrez gain, ikasleen ordezkariarekiko independentzia ere izan behar dute. Hirietan unibertsitate espazioak sortzearen aldeko apustua egin behar da, aurrez egindako lanak irekitasuna izan dezan. Era berean, unibertsitateak elkarte horietan parte hartzea sustatu behar da.



Hori posible izango da, baldin eta unibertsitate biziak uztartzea ahalbidetzen bada eta ikasleen ibilbide akademikoa baldintzatzen ez bada. CREUPen uste dugu unibertsitatearen ekarpena ez dela ikasketa gaietara mugatzen, eta beraz, ikasleek ikasketa gaietatik harago ere parte hartu dezaten sustatu behar da. Azkenik, eragile publikoekin elkarlanean aritu beharra dago, norbere ezagutza aberastu eta herritarrekiko harremana indartzeko.

5. Goi mailako hezkuntzaren finantziakzioa

Unibertsitatearen finantziakzioa ezin du ideologia politikoak baldintzatu, ezta eragile pribatuak sartzeak edo maila politikoan hartutako erabakiek ere. Unibertsitatearen kalitatea, prestakuntza eta eskuragarritasuna zuzenki lotuta dago jasotzen duten finantziakzioarekin. Beraz, aipatutako finantziakzio hori beharrak asetzeko eta unibertsitateek ezarritako helburuak betetzeko adinakoa izan behar da, horrela bermatzen da-eta bere jardunean independentzia izatea.

5.1. Merkantilizazioari buruzko erabakia

Merkantilizazioa (*commodification*) da hezkuntza kuantifikatzeko prozesua, balio ekonomiko bat ezartzeko helburuarekin. Horrek transmititzen duen mezua honakoa da: goi mailako hezkuntza ez da ondasun publikoa, pribatua eta elitista baizik, eta produktu bat bailitzan ulertzen da. Hala, unibertsitateek produktu hori saldu egiten dute eta ikasleak, beraz, ez dira kontsumitzaile hitsak baino, zeintzuen helburua lan merkatura iristea baita. Merkantilizazioan, finantziakzioari buruzko eztabaidaren funtsa unibertsitatearen etekin ekonomikoetan datza, eta ez unibertsitateak garapenerako motor gisa duen gizarte balioan.

CREUPen muzin egiten diogu hezkuntza ondasun negoziagarri gisa ulertzen duen ezein interpretazio egiteari, uste dugulako goi mailako hezkuntza ezin dela ulertu ikuspegi ekonomiko batetik. Aitzitik, uste dugu gizarte ikuspegi batetik begiratu behar zaiola, gizartea garatzeko eta indartzeko gaitasuna duen tresna den heinean. Goi mailako hezkuntzara bideratutako dirua ez da inoiz gastua izango, epe labur, ertain eta luzera egindako inbertsio bat baizik. Beharrezkoa da unibertsitate sistema gizartearekiko irekia eta gardena izatea.

5.2. Inbertsio arrakala

Inbertsio publikoak bermatu behar du goi mailako hezkuntzaren garapena egonkorra eta jasangarria izatea. Hori lortu daiteke baliabideak epe luzeko helburuetan oinarritutako garapena bermatzeko moduan antolatu eta erabiliz gero, eta saihestuz gero epe laburrean etekinak lortzeko xahutzea.



Hori posible izan dadin, gutxienekoen esparru bat ezarri beharra dago, unibertsitateen zuzkidura ekonomikoa bermatzeko. Helburua da BPGaren % 2a erabiltzea unibertsitateak finantzatzeko. Hala, ikasleek unibertsitatera sartzeko egin beharreko gastu ekonomikoa murriztea lortu daiteke. Autonomia erkidegoei dagokienez, inbertsioa moldatu beharra dago, unibertsitate aurrekontuen I. eta II. kapituluak betetzeko. Azkenik, unibertsitateei baimena eman behar zaie izoztuta daukaten soberakina nahi duten moduan erabiltzeko, inbertitu dezaten beraien inguru hurbilean, instalakuntzak moderniza ditzaten eta eta unibertsitateen inguruko ekonomia indartu dezaten.

Unibertsitate inbertsioen beste aldaera bat dira ikasleei hainbat alorretan eskaintzen zaizkien dirulaguntzak. Mantenua, ostatua edo garraioa gisako gaiek baliabideen inbertsio handia egitea eskatzen dute. Unibertsitate jantoki sarea eta egoitzak proposatzea (eredu frantziarrari jarraikiz), garraio beka edo mugikortasun laguntzak zein beste europar unibertsitate batzuekin batera eskainitako tituluak irtenbide egokiak dira, ikasleen erosahalmena edozein dela ere, unibertsitatera sarbidea izatea bermatzeko.

5.3. Helburuetan oinarritutako finantzaketa

Egoera horren aurrean, finantziarioari dagokionez zenbait aukera eskain daitezke, kontabilitate analitikoa (kostuen eta diru sarreren antolaera aztertu eta erabaki hobek hartzeko teknikek multzoa) edo programa kontratuak (helburuetan oinarritutako finantziarioa), esaterako. Finantziario gehigarri orok izan beharko du unibertsitate finantziarioaren sistema publikoaren bermea. Hots, unibertsitatearen funtzionamendu egokia bermatzen duen ekonomiarentzat laguntza gisa balio behar du.

CREUPen uste dugu finantziarioa areagotu daitekeela, balizko diru sarrera gehigarri lotutako betekizun batzuk ezartzearen bidez (esaterako, ikasle kopuruari dagozkionak). Horren ondoren, positibotzat hartzen da programa kontratuak sartzea, sustatu egiten duelako irakaskuntzan ikerketaren, transferentziaren zein irizpideen hobekuntza. Hala nola, irakaskuntzaren berrikuntza maila, ikaslea ardatz duen irakaskuntza edo unibertsitatearen eraldaketa digitala, eta horren beharra zegoela argi utzi du Covid-19ak. Horregatik guztiagatik, ikasleek ebaluazio horretan parte hartzeari positiboa deritzogu.

5.4. Sektore pribatuaren inplikazioa

Unibertsitatearen autonomiari buruzko konpromisoan ez da izan behar sektore pribatuaren



finantziatorik. Dirulaguntza horiek ezin dute inolako hobari fiskalik eragin, ezta unibertsitate komunitatetik kanpoko eragileekiko inolako mendekotasunik sortu ere.

Unibertsitatea eta enpresen arteko akordioek ez dute teknologia berritzaileak, ikasleek esperientzia profesionala izan dezaten lortzeko aplikazio errealeko proiektuak edo ikerketa eta berrikuntza proiektuetan oinarritutako ikastaroak eskuratzea beste helbururik izan behar

Neurri zehatz batzuk ezarri dira, eta parte hartzea edo laguntza sustatu behar dira; lehena, lan munduaren eta unibertsitate esparruaren artean ezagutzak transferitzeko katedren bidez. Bigarrena, aldiz. graduatutako ikasleentzako lan poltsen bidez. Horrez gain, ikerketa ere hauspotu daiteke, unibertsitate eta enpresen arteko elkarlanaren bidez. Hori egitea lortuko da, baldin eta irabaziak ikerketaren inbertsio eta parte hartze mailarekiko proportzionalak badira eta haren ondorioak publikoak badira. Hala, errefortzu positiboa lortzen da, eta ez da zalantzan jartzen unibertsitatearen independentzia.

Azkenik, enpresetan egiten diren praktikak ere aintzat hartu behar dira. Izan ere, praktika horien helburu nagusia lanean oinarritutako ikaskuntza da, ikasleak lan munduari aurre egiteko prestatu daitezten. Praktika orok izan behar du enpresaren aldetik ondo zehaztutako gida bat, eta ikasleak egindako lana ordaindu egin behar zaio, Gizarte Segurantzak eskatzen dituen alderdiak betez eta lan baldintzak zeintzuk diren jasotzen duen kontratu baten bidez.

5.5. Hezkuntzako zergak ordaindu beharrik ez izatea

CREUPen ildoetako bat beti izan da unibertsitatera sartzeko oztopoak desagerraraztearen defentsa. Konpromiso horren baitan kokatuko litzateke hezkuntza alorrean ezarritako ezein zergaren aurka agertzea. Baliabide ekonomiak mugatuak zirenean, zergak ezartzen ziren, eta ikasleek ordaindu egiten zituzten unibertsitaterako sarbidea lortzeko. Zerga horiek, ordea, arazo konplexu batentzako irtenbide oso erraz bilakatu dira, unibertsitateak ez baitauka, oraindik ere, funts nahikorik eta unibertsitatera etortzen jarraitzen duten ikasleen sarbidea baldintzatzen baitu horrek.

Horregatik, eskubide subjektibo errealak diren beka eskaini beharko liriateke, unibertsitatera sartzea herritar guztien esku egon dadin. Horretarako, herritar horiei laguntza eskaini beharko litzateke izan ditzaketen behar horietan. Bekek betekizun ekonomikoak izan behar dituzte soilik, ezagutza alor guztientzat berdina izan behar dira eta unibertsitate publikoetako ikasleentzat bakarrik (autonomia erkidegoko unibertsitate publikoetan dena delako titulazio hori eskaintzen ez den kasuak salbu).



Azken helburua tasak guztiz ezabatzea da, hots, lehen matrikulazioa dohainik izatea eta bigarrena eta hurrengoak ikasleen errentaren arabekoak (gehieneko prezioa ezarrita, betiere). Horrez gain, masterren prezioak graduen prezioekin berdindu beharko lirateke, goi mailako hezkuntzara sartzeko oztoporik ez dagoela bermatzeko.

6. Ondorioak

Goi mailako hezkuntzak gizartearekiko ardura bat dauka, eta abiapuntua bien arteko komunikazioa eta informazioaren hartu emana izan behar dira. Horretarako, komunikazio irekia eta autokritika egitea beharrezkoak dira. Unibertsitatean interakzioa martxan jartzeko, ikasleek erabakiak hartzen parte hartu dezaten sustatu beharra dago, eta proposamenak aktiboki entzuteko prestutasuna izan behar da.

Horregatik, unibertsitate gobernuaren eredia berrantolatu egin behar da, ikasleek parte hartzeko modukoa izan dadin eta beraien iritzia adierazteko lekua izan dezaten. Kogobernantza funtsezkoa da ikasleek senti dezaten beraien ahotsa unibertsitateko beste sektoreena bezain garrantzitsua dela unibertsitate ordezkartzaren maila guztietan.

Guzti horrek unibertsitateak hausnartzea eragiten du, batetik, unibertsitatearen dimentsio sozialari buruz; eta, bestetik, gizartearekiko harremana indartzeko egin behar duenari zein ahalegin horren baldintzei buruz.

Era berean, unibertsitateek argi izan behar dute zein den beraien finantziario eredia, baita gizartean batzuei horietara iristea zailtzen dien arrakala dagoela ere. Unibertsitatearen errendimendua eta gaitasuna zein komunitatearekiko irekitasuna lehenesten diren espazioak sortu behar dira.

Unibertsitatea XXI. mendeko gizartearen isla izan behar da, eta, beraz, herritarren parte hartzea sustatu behar du. Azken finean, gizartearentzat erreferente bat izatera iristeko modu bakarra dago, guztion parte hartzearen bidez, zeina berdintasunezkoa izango den eta dauden oztopo guztiak desagerraraziko dituen.